

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

1- Gure bezeroak mugikorra maiz erabiltzen duten pertsonak dira, adibidez, lana mugikorraren bidez egiten dutenak. Beti batera izatea garrantzitsua iruditzen zaienak eta energia berriztagarriak balioztatzen dituztenak.

2- Gure bezeroen ezaugarri nagusienetako batzuk hauek dira:

- Mugikorraren erabilera aktiboa dute.
- Teknologia berriak gustatzen zaizkie.
- Ingurumenarekiko arduratsuak izaten saiatzen dira.
- Zerbait konstantea eta arina bilatzen dute.
- Kanpoan egoteko ohitura handia dute, bai oporretan bai kalean.

3- Bezero-segmentuak

Gazteak (12-25 urte):

- Sare sozialetan oso aktiboak dira eta mugikorra etengabe erabiltzen dute.
- Diseinu erakargarriak eta berrikuntzak bilatzen dituzte, beti fresko eta moderno izateko.
- Eguzki-panelarekin kargatzen den zorro gustatzen zaie, praktikoa eta jasangarria delako, ingurumenari laguntzen dioten irtenbideak bilatzen baitituzte.

Profesionalak (26-50 urte):

- Lanegatik asko mugitzen dira, eta mugikorra haien eguneroko bizitzan ezinbestekoa da.
- Fidagarritasuna, autonomia eta kalitatea bilatzen dituzte, lanaren erritmo bizira egokitutako produktuak nahi dituzte.
- Eguzki-panelak lan-erritmo bizira egokitutako irtenbide erosoak eskaintzen die, energia aurrezteko aukera emanez.

4- Merkatu mota

Gure produktua merkatu segmentatu batean kokatzen da, bi bezero-talde nagusiri zuzenduta: gazte aktiboak eta profesional mugikorrak.

Bi taldeek autonomia handiagoa eta energia jasangarria bilatzen dute. Horregatik, eguzki-panel integratua duen mugikor-zorroa produktu berritzailea da, praktikoa, diseinu erakargarria eta ingurumenarekiko konpromisoa uztartzen dituen.